

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

64/2020 Foru Agindua, otsailaren 28koa, zeinaren bidez Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskribatzen baita Gasteizko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko ESISA-PEMCO-CAMPSA BEPB 11ko konpentsazio batzordean egindako aldaketa, hots, zuzendaritza organoko karguak berritzea

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorreko 2020ko otsailaren 21eko sarerra data duen idazki baten bidez, Gasteizko Udalak bidali du Gasteizko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko Esmaltaciones-Pemco-Campsas BEPB 11ko konpentsazio batzordeko idazkariak egindako ziurtagiria, zuzendaritza batzordeko karguak berritu direla jakinarazteko, Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskriba dadin.

Bigarrena. Esmaltaciones-Pemco-Campsas BEPB 11ko konpentsazio batzordea Arabako hirigintza entitate laguntzaileen erregistroan inskribatu zen Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatuaren martxoaren 23ko 236/2005 Foru Aginduaren ondorioz.

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Hirigintza Kudeatzeko Arautegia onetsi zuen abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuaren 164. artikuluan xedatzen da ezen, konpentsazio batzordeetan gertatzen diren gorabeherak, hala nola zuzendaritza organorako izendapenen aldaketak, hirigintza entitate laguntzaileen erregistroari jakinaraziko zaizkiola, diharduen administrazioaren bitartez.

Gasteizko Udalak egindako jakinarazpenari erantzen zaio 2019ko abenduaren 27an egindako ziurtagiria, zeinean jasotzen baita Gasteizko hiri antolamendurako plan orokorreko Esmaltaciones-Pemco-Campsas BEPB 11ko Konpentsazio Batzarraren Batzar Orokorrak 2019ko abenduaren 18ko bilkuran hartutako erabakia. Bilkura horretako gai zerrendak jasotzen zuen Zuzendaritza Kontseilua aldatzea. Jakinarazten da onartu dutela bertaratuek aho batez (partaidetza kuoten ehuneko 72,6239), Álvaro Iturriza Vélez de Elburgo, Iñaki Díez Unzueta eta Jordi Cuixart kentzea Zuzendaritza Kontseilutik eta horien ordezkari izendatzea Ana Oregi Bastarrika, Gasteizko Udaleko ordezkari gisa, Jorge Ozcáriz Salazar eta Fernando Rodríguez Pérez, bai eta lehendakaria, diruzaina eta idazkaria ere. Azkenik, ziurtatzen da Zuzendaritza Kontseiluaren osaketa, kide diren pertsonekin, aurrerago zehazten denaren arabera.

Bigarrena. Aplikagarria da Arabako Lurralde Historikoko Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroa sortu eta arautzen duen Diputatuen Kontseiluaren irailaren 20ko 56/2011 Foru Dekretuan aurreikusitakoa.

Hirugarrena. Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzaren Zerbitzuak txosten arrazoitua aurkeztu du, eta jakinarazitako aldaketa erregistroan inskribatzea proposatu du.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Agintzea Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskriba dadila Gasteizko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko ESISA-PEMCO-CAMPSA BEPB 11ko konpentsazio batzordean egindako aldaketa, hots, zuzendaritza kontseiluko karguak berritzea. Pertsona hauek osatzen dute kontseilu hori:

- Lehendakaria: Ana Oregi Bastarrika.
- Diruzaina: Jorge Ozcáriz Salazar.
- Idazkaria: Ainhoa Guevara Etchepare.
- Kideak: Rafael Olabarri, Daniel Ábalos, Ignacio Pombo, Juan Beitia eta Fernando Rodríguez Pérez.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2020ko otsailaren 28a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO